**ORGANOA:** Udalbatzar Txit Garaia
**ÓRGANO:** Excmo. Ayuntamiento Pleno

**BATZARRALDIA:** Ohiz kanpokoa
**SESIÓN:** Extraordinaria

**TOKIA:** Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa
**LUGAR:** Salón de Plenos de la Casa Consistorial

**EGUNA:** 2025eko urriak 16
**FECHA:** 16 de octubre de 2025

**HASIERA ORDUA:** 10:00
**HORA DE COMIENZO**: 10:00 h

**LEHENDAKARIA:** Eneko Goia Laso jauna, Donostiako Udal Txit Garaiko Alkatea.
**PRESIDE:** Don Eneko Goia Laso, Alcalde del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

**ETORRITAKOAK:** Alkateorde jaun-andreak:
**ASISTEN:** Los/las señores/as Tenientes de Alcalde:

Doña Nekane Arzallus Iturriza andrea
Doña Ane Oyarbide Ochoa andrea
Don Iñaki Gabarain Gaztelumendi jauna
Don Jon Insausti Maisterrena jauna

Eta ondorengo zinegotzi jaun-andreak:
Y los/las señores/as concejales/as:

Doña Mª Jesús Idoeta Madariaga andrea
Doña Olatz Yarza Garagorri andrea
Don Martin Ibabe Eceiza jauna
Don Kerman Orbegozo Uribe jauna
Doña Ana López Loiarte andrea
Don Juan Karlos Izagirre Hortelano jauna
Don Jabier Vitoria Roma jauna
Doña Garbiñe Alkiza López de Samaniego andrea
Don Rikardo Burutaran Ferré jauna *(Alkate-Udalburuaren hitzaldian sartu da bilkurara / Se incorpora a la sesión durante la intervención del Sr. Alcalde-Presidente)*
Don Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jauna

Doña Itziar Iturri Arrazola andrea *(Alkate-Udalburuaren hitzaldian sartu da bilkurara / Se incorpora a la sesión durante la intervención del Sr. Alcalde-Presidente)*
Doña Izar Hernando Ibero andrea
Doña Sandra Barrenetxea Díez andrea
Don Carlos García Hernández jauna
Don Juan Marrero Vizcaíno jauna
Don Iñigo García Villanueva jauna
Don Borja Corominas Fisas jauna
Doña Vanessa Vélez de Pablos andrea
Don Victor José Lasa Briz jauna
Doña Arantza González García andrea

**EZ DIRA ETORRI:** Ondorengo zinegotzi jaunak:
**NO ASISTEN:** Los señores concejales:

Don Juan Ramón Viles Mitxelena jauna
Don Jorge Mota Iglesias jauna

**IDAZKARIA:** Nagore Sarasola Otermin, Donostiako Udal Txit Garaiko Udalbatzarreko idazkari nagusia.

**SECRETARIA:** Nagore Sarasola Otermin, Secretaria General del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián.

---------------

| **LABURPENA** | **Zk/ Nº** | **SUMARIO** | **Pág Orr.** |
|---|---|---|---|
| Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena. | Bakarra / Único | Declaración anual de política general. | 2 |

---------------

**DONOSTIAKO UDALBATZAR TXIT GARAIAREN OHIZ KANPOKO OSOKO BILKURA HASITAKOTZAT JOTZEN DA.**

**SE DECLARA ABIERTA LA SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA DEL EXCMO. AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

---------------

**Politika orokorrari buruzko urteko adierazpena.**

**Declaración anual de política general.**

Alkate-Udalburuak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto el Sr. Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**ATSEDENALDIA**

**10:50ean 15 minutuko atsedenaldia egin da eta 11:05etan berriro hasi da saioa.**

**RECESO**

**Siendo las 10:50 h se suspende la sesión por 15 minutos y se reanuda la misma siendo las 11:05 h.**

---------------

Eztabaida hasita, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak, Ane Oyarbide Ochoa andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Victor Jose Lasa Briz jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Alkate-Udalburuak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Juan Karlos Izagirre Hortelano, D.ª Ane Oyarbide Ochoa, D. Borja Corominas Fisas, D. Victor José Lasa Briz, D. Jon Insausti Maisterrena y Alcalde-Presidente, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

---------------

**ATSEDENALDIA**

**RECESO**

**13:41ean eten egin da saioaren bigarren zatia eta 16:45etan berriro hasi da.**

**Siendo las 13:41 h se suspende la segunda parte de la sesión y se reanuda la misma siendo las 16:45 h.**

---------------

**TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENEN INGURUKO EZTABAIDA.**

**DEBATE SOBRE LAS PROPUESTAS PRESENTADAS POR LOS PARTIDOS.**

Eztabaida hasita, Victor Jose Lasa Briz jaunak, Borja Corominas Fisas jaunak, Iñaki Gabarain Gaztelumendi jaunak, Juan Karlos Izagirre Hortelano jaunak eta Olatz Yarza Garagorri andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D. Victor José Lasa Briz, D. Borja Corominas Fisas, D. Iñaki Gabarain Gaztelumendi, D. Juan Karlos Izagirre Hortelano y D.ª Olatz Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**1. Ebazpen Proposamena, PP Taldeak aurkeztua, Donostiako etxebizitzari buruzkoa.**

**“**Borja Corominas Fisas Talde Popularreko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluaren babesean, Donostiako etxebizitzari buruzko EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten du, Politika Orokorreko Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako higiezinen merkatuak bilakaera konplexua izan du duela urte batzuetatik hona, eta horregatik, merkatuaren etengabeko behaketa eta azterketa zorrotza egin behar dira. Etxebizitza eskuratzea da donostiarren erronka nagusietako bat, batez ere gazteentzat eta beren bizi-proiektua hirian garatu nahi duten familientzat.

**1. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo PP, sobre vivienda en Donostia.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno de Política General la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN sobre vivienda en Donostia-San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

El mercado inmobiliario de Donostia presenta, desde hace años, una evolución compleja que exige una observación constante y un análisis riguroso. El acceso a la vivienda constituye uno de los principales retos para los donostiarras, especialmente para los jóvenes y las familias que desean desarrollar su proyecto de vida en la ciudad.

Gaur egun, hainbat informazio-iturri daude —publikoak eta pribatuak— etxebizitzen prezioei, eskaintzari, eskariari, etxebizitza berriei, etxebizitza babestuari eta etxebizitzak birgaitzeari buruz. Hala ere, ez dago datu horiek guztiak batera integratzen eta aztertzen dituen esparru sistematikorik, hain zuzen ere tokiko higiezinen merkatuaren portaeraren irakurketa integral eta dinamikoa ahalbidetzeko.

Actualmente existen diversas fuentes de información —públicas y privadas— sobre precios, oferta, demanda, vivienda nueva, vivienda protegida y rehabilitación. Sin embargo, no existe un marco sistemático que integre y analice de forma conjunta todos estos datos, permitiendo una lectura completa y dinámica del comportamiento del mercado inmobiliario local.

Beharrezkoa da, beraz, azterketa tekniko eta prospektiborako tresna egonkor bat sortzea, horren bidez Udalari merkatuaren ikuspegi orokor eta eguneratua emateko, joerak identifikatzeko eta egon daitezkeen desorekak aurreikusteko.

Resulta necesario, por tanto, crear un instrumento estable de análisis técnico y prospectivo que proporcione al Ayuntamiento una visión global y actualizada del mercado, identifique tendencias y anticipe posibles desequilibrios.

Ezagutza-oinarri sendo eta objektiboarekin bakarrik diseina daitezke etxebizitza-politika eraginkor, errealista eta jasangarriak, hain zuzen ere Donostiak bere erakargarritasunari eta bizi-kalitateari eusteko duen gaitasuna indartuko dutenak.

Solo con una base de conocimiento sólida y objetiva pueden diseñarse políticas de vivienda eficaces, realistas y sostenibles, que refuercen la capacidad de Donostia para mantener su atractivo y calidad de vida.

Gainera, esperientziak erakusten du etxebizitza-politika publiko askok, aplikatzen diren hiri-testuinguruaren arabera, ondorio desberdinak dituztela. Horregatik, Batzorde honek zorrotz aztertu beharko du beste udalerri batzuetan, bai Espainian, bai Europan, garatutako etxebizitza-politiken eragina, ondorio baliagarriak ateratzeko eta eraginkorrak direla frogatu duten neurriak Donostiako errealitatera egokitzeko.

Además, la experiencia demuestra que muchas políticas públicas de vivienda tienen efectos distintos según el contexto urbano en que se aplican. Por ello, esta Comisión deberá también analizar con rigor el impacto de las políticas de vivienda desarrolladas en otros municipios, tanto de España como del resto de Europa, con el fin de extraer conclusiones útiles y adaptar a la realidad donostiarra aquellas medidas que hayan demostrado ser efectivas.

Era berean, funtsezkoa izango da aztertzea nola murriztu tokiko burokraziak etxebizitza berrien garapenean duen eragina, bai denboran bai kostuan. Administrazio-prozedurak sinplifikatzea eta udal-arloen arteko koordinazioa hobetzea funtsezko faktoreak dira merkatuaren arintasuna

Asimismo, será fundamental estudiar cómo reducir el impacto de la burocracia local en el desarrollo de nuevas viviendas, tanto en términos de tiempo como de costes. La simplificación de los procedimientos administrativos y la mejora de la coordinación entre áreas municipales son factores clave para

areagotzeko eta bizitegi-eskaintza berria sortzen laguntzeko.

Helburu horrekin, etxebizitzaren bilakaeraren jarraipena egiteko batzorde ez-iraunkor bat sortzea proposatzen da. Batzorde hori azterketarako, ebaluaziorako eta proposamenerako espazio tekniko gisa sortuko da, eta aukera emango du Donostiako eta kanpoko adituekin esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko.

EBAZPEN PROPOSAMENA

1.- Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio etxebizitzaren bilakaeraren jarraipena egiteko batzorde ez-iraunkor bat sor dezala, etxebizitzaren merkatuaren egoera aztertzeko, haren bilakaera aztertzeko eta esparru horretako udal-politiken plangintza eta eraginkortasuna hobetzen lagunduko duten neurriak proposatzeko.

2.- Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Batzordea honela osa dezala:

- Udal-talde guztien ordezkariak.
- Hirigintza eta Etxebizitza zuzendaritzetako teknikariak.
- Kanpoko adituak, eremu akademiko eta profesionalekoak, bai tokikoak, bai Espainiako gainerako lurraldeetakoak edo atzerrikoak, hiri-merkatuen kudeaketan ezagutza konparatua eta esperientzia eman dezaketenak.
- Donostiako eraikuntzaren eta higiezinen sustapenaren sektoreko ordezkariak,

aumentar la agilidad del mercado y favorecer la creación de nueva oferta residencial.

Con este propósito, se propone la creación de una Comisión no permanente de seguimiento de la evolución de la vivienda, concebida como un espacio técnico de estudio, evaluación y propuesta, abierto al intercambio de experiencias y buenas prácticas con expertos de dentro y fuera de nuestra ciudad.

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a crear una Comisión no permanente de seguimiento de la evolución de la vivienda, con el objetivo de analizar la situación del mercado de la vivienda, estudiar su evolución y proponer medidas que contribuyan a mejorar la planificación y la eficacia de las políticas municipales en este ámbito.

2.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a componer la Comisión de la siguiente manera:

- Representantes de todos los grupos municipales.
- Personal técnico de los departamentos de Urbanismo y Vivienda.
- Expertos independientes del ámbito académico y profesional, tanto locales como del resto de España o del extranjero, que puedan aportar conocimiento comparado y experiencia en la gestión de mercados urbanos.
- Representantes del sector de la construcción y la promoción inmobiliaria

etxebizitzaren garapenean eta hirigintza-prozeduren kudeaketan duten esperientzia praktikoa eman dezaketenak.

3.- Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio Batzordeak etxebizitza eskuratzeko arazoari aurre egiteko behar den maiztasunarekin egin ditzala bilerak, eta ondorioen urteko txosten bat egin dezala, gero Udalbatzari aurkezteko.

4.- Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio bi hilabeteko epean, proposamen hau onartzen denetik zenbatzen hasita, Bozeramaileen Batzordeak erabaki dezala Batzordearen osaera zehatza eta funtzionamendu-araudia.

5.- Donostiako Udalbatzak Gobernu Taldeari eskatzen dio erabaki hau Hirigintza Zuzendaritzari eta Etxegintzari helarazteko, gauzatu dadin eta koordinazio teknikoa izan dezan.

Donostian, 2025eko urriaren 16an

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea".

de Donostia, que aporten su experiencia práctica en el desarrollo de vivienda y en la gestión de los procedimientos urbanísticos.

3.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que la Comisión celebre reuniones con la periodicidad necesaria para hacer frente al problema de acceso a la vivienda, y elaborará un informe anual de conclusiones que será presentado al Pleno del Ayuntamiento.

4.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que en el plazo de dos meses desde la aprobación de esta propuesta, la Junta de Portavoces determinará la composición concreta y el reglamento de funcionamiento de la Comisión.

5.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a trasladar este acuerdo al Departamento de Urbanismo y a Etxegintza, a efectos de su ejecución y coordinación técnica.

En San Sebastián, a 16 de octubre de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular".

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**1. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 1:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**

ALDEKO BOTOAK: 12 – (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

VOTOS A FAVOR: 12 – (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

1. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 2 – PP.
AURKAKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 2 – PP.
VOTOS EN CONTRA: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 0.

1. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) PP.
AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) PP.
VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.

1. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 1:

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 2 – PP.
AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 2 – PP.
VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.

**ABSTENTZIOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**ABSTENCIONES: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

## 1. PROPOSAMENAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA PROPUESTA N.º 1:

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**2. Ebazpen Proposamena, PP Taldeak aurkeztua, Udaleko lan prozesuen auditoretzari buruzkoa.**

“Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Udaleko lan prozesuen auditoretza egitearen gaineko EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkeztu du, Politika Orokorreko Osoko Bilkuran aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Auditoretza operatibo edo prozesuen auditoretzak Udalaren egitura funtzionalaren diagnostiko xehatua izateko modua ematen du. Lan-fluxuen mapa egiten du; balio erantsi txikiko jarduerak, zeregin errepikakorrak edo eraginkortasunik gabeak identifikatzen ditu, eta denbora eta kostuak murriztuko moduko

**2. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo PP, sobre auditoría de procesos de trabajos municipales.**

“Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno de Política General la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN Auditoria de procesos de trabajos municipales.

JUSTIFICACIÓN

Una auditoría operativa o de procesos permite obtener un diagnóstico detallado de la estructura funcional del Ayuntamiento: mapea los flujos de trabajo, identifica actividades de bajo valor añadido, tareas repetitivas o ineficiencias, y propone ajustes que reduzcan tiempos y costes. Ese análisis no solo beneficia la eficiencia

doikuntzak proposatzen ditu. Azterketa horrek, barne-eraginkortasunari mesede egiteaz gain, herritarren konfiantza indartu ere egiten du, kudeaketa ona egiteko eta kontuak emateko konpromiso argia erakusten baitu.

interna, sino que también fortalece la confianza ciudadana al demostrar un compromiso claro con la buena gestión y la rendición de cuentas.

Gainera, ezinbestekoa da ikuspegi konparatu bat txertatzea: beste udalerri batzuetan egiten duten prozesuen auditoretza-esperientziak aztertu eta eraginkorrak izatea erakutsi duten haien praktikak norberarenera egokitzea. Horrek politika informatuak sortzen ditu, ebidentzian oinarrituta eta planteamendu teorikoetatik urrun direnak.

Además, resulta indispensable incorporar una visión comparada: analizar experiencias de auditoría de procesos en otros municipios y adaptar las prácticas que han probado su eficacia. Esto genera políticas informadas, basadas en la evidencia y alejadas de planteamientos teóricos.

Bestalde, udalen eraginkortasun falta asko tokiko burokraziatik etorritakoak izaten dira: administrazio-izapide gehiegi izatea, baimenak berandu ematea, balidazio prozedura geldoak izatea, berrikuspen ugari edota sailen arteko koordinazio eskasa izatea. Auditoretzak udal-burokraziak kostuetan (materialak eta giza kostuak) eta ekimen berriak garatzeko epeetan duen eraginaren ebaluazio zehatza jaso behar du, eta produktibitatea zerbitzu publikoen kalitateari eragin gabe handitzea ahalbidetuko duten sinplifikazio-mekanismoak proposatu behar ditu.

Por otra parte, muchas de las ineficiencias municipales provienen de la burocracia local: trámites administrativos excesivos, demoras en permisos, procedimientos lentos de validación interna, múltiples revisiones o coordinación deficiente entre departamentos. La auditoría debe incluir una evaluación concreta del impacto de la burocracia municipal sobre los costes (materiales y humanos) y sobre los plazos de desarrollo de nuevas iniciativas, proponiendo mecanismos de simplificación que permitan aumentar la productividad sin afectar la calidad de los servicios públicos.

Helburu horrekin, Alderdi Popularraren Udal Taldeak Donostiako Udaleko Osoko Bilkurari proposatu dio Udaleko lan prozesuen kanpoko auditoretza independente bat egiten hastea, hobekuntza-plan zehatz eta neurgarria izango duena eta jarraipen publikoa egiteko modua emango duena.

Con esta motivación, el Grupo Municipal del Partido Popular propone al Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián iniciar una auditoría externa e independiente de los procesos de trabajo municipales, que produzca un plan de mejora concreto, medible y sujeto a seguimiento público.

ZERBITZUEN KALITATEAN KALTE EGIN GABE MURRIZTU DAITEZKEEN KOSTU BATZUK

TIPOS DE COSTES QUE PODRÍAN REDUCIRSE SIN IMPACTAR NEGATIVAMENTE EN LA CALIDAD DE LOS SERVICIOS

Atzerapenak eta administrazio-epeak
- Lizentzia edo baimenen denbora murriztea.
- Barne-produktibitatea eta herritarren pertzepzioa hobetzea.

Alferrikako bikoiztasunak eta burokrazia
- Izapideak edo berrikuspenak behin eta berriz egiten aritzea.
- Sailen arteko koordinazioa eta zirkuituak sinplifikatzea.

Langileen eta giza baliabideen orduak.
- Administrazio-denborak optimizatzea, zereginak digitalizatu eta birbanatuta.

Zeharkako kostuak (paper-gauzak, barne-garraioa, inprimaketak, artxibo fisikoak).
- Bitarteko digitalekin eta espediente elektronikoekin ordezkatzea.

Kontratazio- eta erosketa-prozesuak
- Erosketak eta esparru-kontratuak taldekatzea, baldintza ekonomikoak hobetzeko.

Berandu ordaintzeak edo penalizazioek eragindako finantza-kostuak.
- Atzerapenek ekarritako errekarguak eta zehapenak murriztea.

Mantentze-lanen eta zerbitzu operatiboen kostuak.
- Plangintza prebentiboa, zuzentzailearen ordez.

Administrazio-akatsak eta koordinazio-falta.
- Gorabeherak eta erreklamazioak prebenitzea, komunikazio eta sistema komun hobeak izanda.

Atzerapenak izatea proiektu berrietan.



Retrasos y plazos administrativos
- Reducción de tiempos en licencias, permisos o autorizaciones.
- Mejora de la productividad interna y de la percepción ciudadana.

Duplicidades y burocracia innecesaria
- Eliminación de trámites repetidos o revisiones múltiples.
- Coordinación interdepartamental y simplificación de circuitos.

Horas de personal y recursos humanos
- Optimización de tiempos administrativos mediante digitalización y redistribución de tareas.

Costes indirectos (papelería, transporte interno, impresiones, archivos físicos)
- Sustitución por medios digitales y expediente electrónico.

Procesos de contratación y compras
- Agrupación de compras y contratos marco para mejorar condiciones económicas.

Costes financieros por pagos tardíos o penalizaciones
- Reducción de recargos y sanciones por retrasos.

Costes de mantenimiento y servicios operativos
- Planificación preventiva en lugar de correctiva.

Errores administrativos y falta de coordinación
- Prevención de incidencias y reclamaciones mediante mejor comunicación y sistemas comunes.

Demoras en proyectos nuevos

- Kontratu-atzerapenen edo gauzatze-atzerapenen ondoriozko gainkostuak saihestea.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari:

1.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio Udaleko prozesuen auditoretza independentea egiten hasteko, giltzarri diren barne-prozedurak hartuko dituena (lizentziak, kontratazioa, hirigintza, herritarren arreta, sailen arteko koordinazioa...), eta helburutzat izango duena eraginkortasuna non hobetu daitekeen zehaztea, kostuak murriztea eta administrazioa arintzea, zerbitzuen kalitatea murriztu gabe, betiere.

2.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio administrazio publikoan esperientzia duen kanpoko erakunde independente bati agintzeko auditoretza hori egitea, eta barneko batzorde bat ere izatea hura ikuskatzeko, udaleko taldeen ordezkariak eta teknikariak izango dituen batzordea.

3.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio auditoretzak, besteak beste, alderdi hauei heltzeko:

a) Barne-prozesuak mapatzea eta benetako denborak eta kostuak kuantifikatzea.

b) Bikoiztasunak, itoguneak eta prozesu erredundanteak identifikatzea.

c) Tokiko burokraziak kudeaketa-kostuetan eta -epeetan duen eragina aztertzea.

- Evitar sobrecostes derivados de retrasos contractuales o de ejecución.

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a:

1.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a iniciar una auditoría independiente de los procesos municipales, con alcance sobre los procedimientos internos clave (licencias, contratación, urbanismo, atención ciudadana, coordinación interdepartamental...), con el objeto de identificar mejoras de eficiencia, reducción de costes y agilización administrativa sin merma en la calidad de los servicios.

2.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a contratar la auditoría a una entidad externa e independiente con experiencia en administración pública, y contará con un comité supervisor interno que incluya representación de los grupos municipales y técnicos del Ayuntamiento.

3.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a que la auditoría incorpore, entre otros aspectos:

a) Mapear los procesos internos y cuantificar tiempos y costes reales.

b) Identificar duplicidades, cuellos de botella y procesos redundantes.

c) Analizar el impacto de la burocracia local sobre los costes y plazos de gestión.

d) Beste udalerri batzuetako esperientziekin alderatzea (benchmarking).

e) Hobekuntza-plan bat egitea; gomendioak, kronograma, arduradunak eta espero den aurrezkiaren zenbatespena izango duen plana.

f) Proposatutako neurrien betetze-maila eta inpaktua ebaluatzeko adierazleak definitzea.

4.- Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Gobernu Taldeari eskatzen dio, txostena egin ondoren, mailaz mailako ezarpen-plan bat onartzeko, sei hilean behin jarraipena egin eta kontuak osoko bilkurari emateko gero.

Azken txostena eta hobekuntza-plana publikoak izango dira, lege-babesaren edo konfidentzialtasunaren mende diren alderdiak izan ezik.

Donostia, 2025eko urriaren 16a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”.

d) Comparar con experiencias de otros municipios (benchmarking).

e) Formular un plan de mejora con recomendaciones, cronograma, responsables y estimación del ahorro esperado.

f) Definir indicadores para evaluar el cumplimiento y el impacto de las medidas propuestas.

4.- El Ayuntamiento Pleno de San Sebastián insta al Equipo de Gobierno a, una vez emitido el informe, adoptar un plan de implementación escalonado, con seguimiento semestral y rendición de cuentas ante el Pleno.

El informe final y el plan de mejora serán públicos, salvo en los aspectos sujetos a protección legal o confidencialidad.

En San Sebastián, a 16 de octubre de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”.

**2. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 2:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**ABSTENCIONES: 8 – EH BILDU.**

---------------

**3. Ebazpen Proposamena, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, turismo eta ingurumen inpaktuagatik udal zerga bat ezartzeari buruzkoa.**

“ELKARREKIN DONOSTIA taldearen bozeramaile Victor Lasa Brizek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluaren babesean, turismo- eta ingurumen-inpaktuaren gaineko udal-zerga ezartzeari buruzko ebazpen-proposamen hau aurkezten du, POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENAren inguruko ezohiko osoko bilkuran aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia estatuko helmuga turistiko nagusietako bat da, eta, urte-sasoi jakin batzuetan, nabarmen biderkatzen du bertako biztanleen kopurua. Fenomeno horrek onura ekonomikoak sortzen ditu, baina baita ingurumen-, gizarte- eta hiri-inpaktuak ere, eta inpaktu horiek, neurri handi batean, udal-zerbitzuek eta herritarrek jasaten dituzte.

Hori dela eta, egungo fiskalitatea turismo- eta ingurumen-inpaktuaren gaineko udal-zerga batekin osatu beharra dago. Zerga horrek turismoarekin lotutako operadore ekonomiko nagusiak zergapetuko lituzke (ostatuak, ostalaritza, aparkalekuak, turismo-garraioa, souvenir-dendak, jarduera-enpresak eta beste batzuk), hiri-espazioan eta ingurumenean duten onura eta inpaktu mailaren arabera.

Zerga hori erantzunkidetasun-printzipioan eta inpaktu gehien eragiten duenak gehien ordaindu behar duela dioen printzipioan oinarritzen da. Horrek aukera emango luke

**3. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la implantación de un impuesto municipal por impacto turístico y ambiental.**

“Victor Lasa Briz, Portavoz del grupo ELKARREKIN DONOSTIA, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente Propuesta De Resolución Sobre La Implantación De Un Impuesto Municipal Por Impacto Turístico Y Ambiental.

JUSTIFICACIÓN

Donostia / San Sebastián se ha consolidado como uno de los principales destinos turísticos del Estado, con una afluencia que, en determinadas épocas del año, multiplica significativamente su población residente. Este fenómeno genera beneficios económicos, pero también impactos ambientales, sociales y urbanos que recaen en buena medida sobre los servicios municipales y la ciudadanía.

Resulta necesario complementar la actual fiscalidad con un impuesto municipal por impacto turístico y ambiental, que grave a los principales operadores económicos vinculados al turismo (alojamientos, hostelería, parkings, transporte turístico, comercios de souvenirs, empresas de actividades y otros) en función de su nivel de beneficio e impacto sobre el espacio urbano y el medio ambiente.

Este impuesto se fundamenta en los principios de corresponsabilidad y 'quien más impacto genera, más contribuye', y permitiría reforzar el compromiso de la ciudad con la sostenibilidad y

hiriak jasangarritasunarekin eta bizikidetzarekin duen konpromisoa indartzeko eta turismotik eratorritako kostuak eta onurak modu bidezkoagoan banatzeko.

la convivencia, distribuyendo de manera más justa los costes y beneficios derivados del turismo.

Gainera, zerga horrekin bildutako dirua gardentasunaren eta herri-partaidetzaren irizpideekin kudeatuko partaidetzazko funts finalista bati lotuta egongo litzateke.

Además, su recaudación estaría vinculada a un fondo finalista y participativo, gestionado con criterios de transparencia y participación ciudadana.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo ello, presentamos la siguiente:

EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak udal-gobernuari eskatzen dio egin dezala azterlan tekniko eta juridiko bat turismo- eta ingurumen-inpaktuaren gaineko udal-zerga bat ezartzea bideragarria den ikusteko, turismoari lotutako sektore ekonomikoek ingurumenean eta gizartean duten inpaktua zuzenean arintzen lagun dezaten.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a elaborar un estudio técnico y jurídico sobre la viabilidad de implantar un impuesto municipal por impacto turístico y ambiental, con el objetivo de que los distintos sectores económicos vinculados al turismo contribuyan a mitigar sus impactos ambientales y sociales de manera directa.

Donostia, 2025eko urriaren 16a

Donostia, a 16 de octubre de 2025

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea”.

Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”.

**3. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 3:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 8 – EH BILDU.**

---------------

**4. Ebazpen Proposamena, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Donostiako etxebizitza publikoen ehunekoa handitzeari buruzkoa.**

“ELKARREKIN DONOSTIA taldeko bozeramaile Victor Lasa Brizek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluaren babesean, etxebizitza publikoaren ehunekoa handitzeari buruzko EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten du, Politika Orokorrari buruzko Urteko Adierazpenari buruzko ezohiko Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Etxebizitza eskuratzea hiriko arazo larrienetako bat da oraindik ere. Etxebizitza publikoen eskasiak auzotik kanporatzen ditu auzokideak, eta horren ondorioz, zailagoa da gazteek eta diru-sarrera ertain edo apalak dituzten familiek beren bizi-proiektua Donostian garatu ahal izatea.

Egoera horri buelta emateko, ezinbestekoa da Udalak urrats sendo bat ematea eta etxebizitza-sustapen berri gehienak babes publikoko etxebizitzak egiteko erabiltzen direla bermatzea. Azken urte hauetako esperientziak erakusten duenez, gero eta eskuraezinagoa den merkatu baten aurrean, etxebizitza babestuen ehuneko handiekin soilik eskaini ahal izango diegu herritarrei benetako alternatiba bat.

Era berean, beharrezkoa da Udalak lankidetzan jardutea etxebizitzaren arloan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin, etxebizitza-sustapenen finantzaketa indartzeko eta lehentasuna emateko bai

**4. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al incremento del porcentaje de vivienda pública en San Sebastián.**

“Victor Lasa Briz, Portavoz del grupo ELKARREKIN DONOSTIA, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente Propuesta de Resolución relativa al incremento del porcentaje de vivienda pública en Donostia / San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN

El acceso a la vivienda sigue siendo uno de los problemas más graves de la ciudad. La escasez de vivienda pública empuja a los vecinos y vecinas fuera de sus barrios y dificulta que jóvenes y familias con ingresos medios o bajos puedan desarrollar su proyecto de vida en Donostia.

Para revertir esta situación, es imprescindible que el Ayuntamiento dé un paso firme y asegure que la mayor parte de las nuevas promociones de vivienda estén destinadas a protección pública. La experiencia de estos últimos años demuestra que únicamente con porcentajes elevados de vivienda protegida podremos ofrecer una alternativa real a la ciudadanía frente a un mercado cada vez más inaccesible.

Es necesario también que el Ayuntamiento colabore con el resto de instituciones con competencias en vivienda para reforzar la financiación de las promociones y que se prioricen tanto la rehabilitación de edificios como

eraikinak birgaitzeari bai udal-lurzorua etxebizitza publikoak eraikitzeko aprobetxatzeari.

el aprovechamiento del suelo municipal para la construcción de vivienda pública.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo ello, presentamos la siguiente:

EBAZPEN PROPOSAMENA

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. Donostiako Udalbatzak udal-gobernuari eskatzen dio etxebizitza publikoen gutxieneko ehunekoak areagotu ditzala etxebizitza-sustapen guztietan, era horretan, alokairuko etxebizitza publikoen esparruan herritarren egungo benetako beharrei erantzuteko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a elevar los porcentajes mínimos de vivienda pública en todas las promociones, de manera que se responda a las necesidades actuales de la ciudadanía en materia de alquiler asequible.

2. Hiri-lurzoruan garatzen diren sustapenetan, gutxienez %70eko etxebizitza publikoaren ehunekoa ezartzen da helburu gisa.

2. Se fija como objetivo un porcentaje mínimo del 70 % de vivienda pública en las promociones que se desarrollen en suelo urbano.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio etxebizitzaren arloan eskumena duten erakunde publikoekin koordinatu dadila, proiektuek finantzaketa nahikoa dutela ziurtatzeko.

3. El Pleno insta al gobierno municipal a coordinarse con las instituciones públicas competentes en materia de vivienda para asegurar la financiación suficiente de los proyectos.

4. Etxebizitza-parke publikoa handitzeko bide gisa, lehendik dauden eraikinak birgaitzea lehenetsi beharko da.

4. Se deberá priorizar la rehabilitación de edificios existentes como vía para aumentar el parque público de vivienda.

5. Etxebizitza babestuko proiektuak eraikitzeko, Udalak udal-lurzoruaren erabilerari eman beharko dio lehentasuna.

5. El Ayuntamiento dará prioridad al uso de suelo municipal para la construcción de proyectos de vivienda protegida.

6. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio egutegi eguneratu bat aurkez dezala 2010eko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean jasota dauden eta oraindik gauzatzeko dauden zuzkidura-etxebizitza guztiak egikaritzeko.

6. El Pleno insta al gobierno municipal a presentar un calendario actualizado para la ejecución de todas las viviendas dotacionales recogidas en el Plan General de Ordenación Urbana de 2010 que siguen pendientes de materializar.

7. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio araudi

7. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al Gobierno municipal a aplicar

autonomikoan aurreikusitako etxebizitza-kanona eraginkortasunez aplika dezala, era horretan, etxebizitza hutsak alokairu sozialera edo alokairu eskuragarrira bideratzeko.

8. Era berean, proposatzen da Udalak hutsik dauden etxebizitzen erregistro eguneratu bat egitea eta Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza-hitzarmenak ezartzea, kanonaren egiten den diru-bilketa oso-osorik hiriko etxebizitza publikoko eta etxebizitzak birgaitzeko programetara bideratuko dela bermatzeko.

Donostia, 2025eko urriaren 16a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea".

de forma efectiva el canon de vivienda previsto en la normativa autonómica, con el objetivo de movilizar las viviendas vacías hacia el alquiler social o asequible.

8. Asimismo, se propone que el Ayuntamiento elabore un registro actualizado de viviendas desocupadas y establezca convenios de colaboración con el Gobierno Vasco para asegurar que la recaudación del canon se destine íntegramente a programas de vivienda pública y rehabilitación en la ciudad.

Donostia, a 16 de octubre de 2025

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia".

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**4. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**4. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**

BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
ABSTENTZIOAK: 8 – EH BILDU.

RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
ABSTENCIONES: 8 – EH BILDU.

**4. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 4:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

**4. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 4:**

BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 12 – (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 12 – (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.
ABSTENCIONES: 0.

**4. PROPOSAMENAREN 5. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 5 DE LA PROPUESTA N.º 4:**

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

**4. PROPOSAMENAREN 6. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 6 DE LA PROPUESTA N.º 4:**

BOZKETAREN EMAITZA:

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:

**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 17 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 8 – EH BILDU.**

**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 17 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 8 – EH BILDU.**

**4. PROPOSAMENAREN 7. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 7 DE LA PROPUESTA N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 10 – (8) EAJ/PNV, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 10 – (8) EAJ/PNV, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**4. PROPOSAMENAREN 8. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 8 DE LA PROPUESTA N.º 4:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**5. Ebazpen Proposamena, Donostiako Sozialistak PSE-EE Taldeak aurkeztua, Donostiako etxebizitza-politikari buruzkoa.**

**5. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, sobre la política de vivienda en San Sebastián.**

“Donostiako Sozialistak PSE-EE taldearen bozeramaile Ane Oyarbide Ochoak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Donostiako etxebizitza politikari buruzko EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten du, POLITIKA OROKORRAREN URTEKO ADIERAZPENARI BURUZko Udalbatzan aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA:

Etxebizitzarako eskubidea herritarren eskubide subjektibo bat da, funtzio sozial bat betetzen du, eta, beraz, administrazio publikoek bermatu behar duten eskubide bat da.

Bestalde, argi dago Donostian aurre egin beharreko arazo nagusietako bat etxebizitzaren garestitasuna eta alokairuaren prezio altuak direla, horren ondorioz, herritar askorentzat oso zaila baita merkatu librean etxebizitza bat eskuratzea. Horregatik, besteak beste, etxebizitza-parke publiko bat sortzeko lan egin behar dugu, Donostiako milaka familiei bizitegi-irtenbide bat emateko.

Neurriak modu koordinatuan eta denboran modu jarraituan hartu behar dira (erabilera-aldaketak eta segregazioak bultzatzea, alokairuko etxebizitzak kudeatzaile publikoen bidez kudeatzea, kanona aplikatzea, tentsio handiko eremu izendatzea, zerga-neurriak, etab.), baina horien guztien artean berebiziko garrantzia du merkatuan eraginkortasunez esku hartzea ahalbidetuko duen etxebizitza-parke publiko bat sortzeak. Parke publiko hori sortzeko, ezinbestean, etxebizitza babestuak gauzatu behar dira, modalitate guztietan, bai eta zuzkidura-bizitokiak eraiki ere.

“Dª. Ane Oyarbide Ochoa, Portavoz del Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, sobre la política de vivienda en San Sebastián.

JUSTIFICACIÓN:

El derecho a la vivienda es un derecho subjetivo de la ciudadanía que cumple una función social, y, por lo tanto, es un derecho que las administraciones públicas deben garantizar.

Por otro lado, es evidente que uno de los principales problemas que afrontamos en Donostia es el de la carestía de la vivienda y los altos alquileres que hacen que muchas ciudadanas y ciudadanos tengan muy difícil el acceso a una vivienda en el mercado libre, razón por la cual debemos trabajar, entre otras cuestiones, en la creación de un parque público de vivienda que permita dar una solución habitacional a miles de familias donostiarras.

Se deben adoptar medidas de manera coordinada y sostenida en el tiempo (impulso de cambios de uso, segregaciones, gestión de alquileres a través de gestores públicos, aplicación de canon, declaración de zona tensionada, medias fiscales, etc.), pero entre todas ellas cobra especial relevancia la creación de un parque público de vivienda que permita intervenir de forma efectiva en el mercado. Un parque público que pasa ineludiblemente por la ejecución de vivienda protegida en sus diferentes modalidades, así como la construcción de alojamientos dotacionales.

Parke publiko hori sortzeko, aldez aurreko plangintza-fase bat behar da, era horretan, garapen berrien kudeaketan eta hiriberroneratzeko ekintzetan eraginkorrak izateko. Kudeaketa eraginkor horrek, besteak beste, lurzoru-eskasia eta dentsitatea zein espazio publikoak sortzea uztartu behar ditu, adibidez, altueran eraikiz, okupazio gutxirekin.

Para la creación de este parque público es necesaria una fase previa de planificación que permita ser eficaces en la gestión tanto de nuevos desarrollos como de acciones de regeneración urbana. Una gestión eficaz que, entre otras cuestiones, debe conjugar la escasez de suelo con la densidad y la creación de espacios públicos, por ejemplo, construyendo en altura, con poca ocupación.

Ildo horretan, azpimarratu behar da indarrean dagoen HAPOa 2010ekoa dela; horregatik, premiazkoa da plan horren berrikuspen integrala egitea. Ezinbestekoa da HAPO berri bat izatea, plangintza eguneratua izateko, era horretan, hirian etxebizitzaren arloan ditugun erronka handiei aurre egin ahal izateko.

En este sentido cabe destacar que el vigente PGOU es del año 2010, razón por la cual urge su revisión integral. Es esencial tener un nuevo PGOU que permita una planificación actualizada y acorde a los grandes retos que afrontamos en la ciudad en materia de vivienda.

HAPOren esleipenaren atzerapenak kezkatzen gaitu, baita Hirigintza Zuzendaritzak irizpide argirik ez izatea garrantzi estrategikoko hirigintza-jarduketen inguruan, esaterako Easoko trenbideen gunearen edo Auditz Akularren inguruan ere; horrek agerian uzten du ez dagoela hiri-mailako ikuspegirik.

Nos preocupa el retraso de la adjudicación del PGOU, pero también nos preocupa la falta de un criterio claro en el Departamento de Urbanismo sobre actuaciones urbanísticas de importancia estratégica como son la playa de vías de Easo o Auditz Akular, lo que muestra una inquietante ausencia de visión de ciudad.

Auditz Akular edo Loiolako kuartelen eremuek, besteak beste, ezin dute itxaron, horietan milaka etxebizitza publiko eskainiko baitzaizkie herritarrei. Orain hasi behar da eremu horiek antolamendua egiten.

Ámbitos como Auditz Akular o Cuarteles de Loiola no pueden esperar, porque suponen la puesta a disposición de la ciudadanía de miles de viviendas públicas. Se debe arrancar ya con su ordenación.

Gainera, etorkizuneko HAPOan, Urumeako ibaiertzaren garapena amaitzeko aukera emango duen antolamendua jorratu beharko da, eta, batez ere, hiri-berroneratzeko eremuak identifikatu eta planifikatu beharko dira, hala nola Igara edo Ibaeta eremuak; izan ere, lurzoru gutxi dagoenez, etorkizunean, modu hori ezinbestekoa izango da hiriaren bizitegihedapena planteatzeko.

Además, en el futuro PGOU se deberá abordar la ordenación que permita culminar el desarrollo de la Vega del Urumea y, sobre todo, identificar y planificar zonas de regeneración urbana, como pudieran ser los ámbitos de Igara o Ibaeta, ya que en un futuro, y ante la escasez de suelo, esta será una manera imprescindible de plantear la expansión residencial de la ciudad.

Horrek guztiak erakundeen arteko lankidetza handia eskatzen du. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiogu Eusko Jaurlaritzari Donostian etxebizitza publikoak egiten parte hartzeagatik, bai hitzarmen bidez udal-lurzatiak lagata, bai Eusko Jaurlaritzaren edo hari lotutako erakunde publikoen jabetzako eremuetan jarduketak eginda. Udalak modu irmoan bultzatu eta sakondu behar du bide hori.

Y todo ello exige una importante colaboración interinstitucional. Por eso es de agradecer la implicación del Gobierno Vasco en la ejecución de vivienda pública en San Sebastián, tanto a través de la cesión de parcelas municipales mediante convenio, como por medio de actuaciones en ámbitos propiedad del Gobierno Vasco o de entes públicos vinculados a este. Es un camino que debe impulsarse y profundizarse con decisión desde el Ayuntamiento.

Hori dela-eta, Donostiako Sozialistak PSE-EE taldeak EBAZPEN PROPOSAMEN hau sinatzen du, Udalbatzan eztabaida dadin:

Por todo ello, el grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE suscribe la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser debatida en el Pleno:

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio HAPOaren berrikuspena idazteko lanak ahalik eta lasterren esleitu ditzala, HAPOa funtsezko dokumentua baita Donostian etxebizitza eskuratzeko dagoen arazo larriari aurre egin ahal izateko.

1. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a la adjudicación de los trabajos de redacción de la revisión del PGOU a la mayor brevedad posible, toda vez que es un documento esencial para poder hacer frente al gravísimo problema de acceso a la vivienda que se da en San Sebastián.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio HAPO berria idazteko prozeduran azter dadila etxebizitzarako eremuak berroneratzeko aukera, gaur egun atxikita duten xedea aldatuz, hain zuzen.

2. El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, en el procedimiento de redacción del nuevo PGOU, se explore la posibilidad de proceder a regenerar ámbitos con destino a vivienda cambiando el destino al que actualmente están adscritos.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, HAPO berria behin betiko onartzen ez den bitartean, Auditz Akular edo Loiolako Kuartelak bezalako eremuen garapenari ekin diezaiola, hiri-plangintzaren aldaketen edo beste antolamendu-dokumentu batzuen bidez. Horri esker, etxebizitza-parke publiko handi bat sortzeko bidean lehenbailehen aurrera egin ahal izango da.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que en tanto no se aprueba definitivamente el nuevo PGOU, se proceda, a través de modificaciones del planeamiento u otros documentos de ordenación, a iniciar el desarrollo de ámbitos como Auditz Akular o Cuarteles de Loiola, lo que permitirá avanzar sin mayor dilación hacia la creación de un gran parque público de vivienda.

4. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián

eskatzen dio Eusko Jaurlaritzarekin lankidetza irmoan jardun dezala, azken horrek udallurzatiak lagaz etxebizitza publikoa egiteko, eta, gainera, bere jabetzako lurzatietan bizitegi-eremuak garatzeko behar den laguntza guztia emanez.

Donostia, 2025eko urriaren 16

Ane Oyarbide Ochoa
PSE-EE udal taldearen bozeramailea”.

insta al Gobierno Municipal a colaborar de manera decidida con el Gobierno Vasco por medio de la cesión de parcelas municipales para la ejecución de vivienda pública, prestando además toda la colaboración necesaria para el desarrollo de ámbitos residenciales en parcelas de su propiedad.

San Sebastián, 16 de octubre de 2025

Ane Oyarbide Ochoa
Portavoz grupo municipal PSE-EE“.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**5. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 2 – PP.**

**5. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**5. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**AURKAKO BOTOAK: 0.**
**ABSTENTZIOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**VOTOS EN CONTRA: 0.**
**ABSTENCIONES: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**

**5. PROPOSAMENAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DE LA PROPUESTA N.º 5:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 2 – PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 2 – PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**6. Ebazpen Proposamena, Donostiako Sozialistak PSE-EE Taldeak aurkeztua, segurtasunari buruzkoa.**

“Donostiako Sozialistak PSE-EE taldearen bozeramaile Ane Oyarbide Ochoak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 55. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Donostiako segurtasunari buruzko EBAZPEN PROPOSAMEN hau aurkezten du, POLITIKA OROKORRAREN URTEKO ADIERAZPENARI BURUZko Udalbatzan aztertzeko.

**6. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, sobre la seguridad.**

“Dª. Ane Oyarbide Ochoa, Portavoz del Grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE, al amparo del vigente artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar, para su tratamiento en el Pleno sobre LA DECLARACIÓN ANUAL DE POLÍTICA GENERAL la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN, sobre la seguridad en San Sebastián

JUSTIFIKAZIOA:

Segurtasunaren inguruko kezkak gora egin du azken urteotan, eta donostiarren artean kezka gehien sortzen duten gaien artean dago. Eta logikoa da hala izatea. Izan ere, Donostiak, oro har, hiri segurua izaten jarraitzen badu ere, gero eta herritar gehiagoren ustez, jada ez da horren segurua, eta zoritxarrez, datuek pertzepzio hori berresten dute.

Badakigu arazo konplexua dela, baina konponbideak ezartzeko ordua da eta Donostiako Talde Sozialistan uste dugu konponbideak aurkitu eta martxan jarri behar direla, bai eta behar diren bitarteko guztiekin eta gaiak eskatzen duen lehentasunarekin jardun behar dela ere.

Horretarako, ezinbestekoa da borondate politiko irmoa izatea; izan ere, erantzun teknikoez eta horiekin batera joan behar diren baliabideez gain, egoera are gehiago zailtzen duten jarrerak ere saihestu behar dira. Alde batetik, batzuek segurtasunik eza migrazioarekin automatikoki lotzeko duten interesaz ari gara, gure lurraldera etortzen diren pertsona gehienen helburua zintzotasunez lan egitea eta bizitzea baita, legeak errespetatuz eta gure gizartearen aberastasun material eta kulturalarean bere ekarpena eginez.

Eta, bestetik, segurtasun-indarren aurrean berezko gaitzespena sentitzen dutenak ere badaude. Batzuetan, onkeria erakusten dute, eta horrek, egoera hobetzen lagundu beharrean, arazoa areagotu egiten du.

Horregatik, inork ezin du zalantzan jarri Ongizate Estatuarekin dugun konpromisoa, ezta premia dutenei babesa emango dieten

JUSTIFICACIÓN:

La preocupación por la seguridad ha ido en aumento en los últimos años hasta situarse entre los temas que más inquietud suscitan en la ciudadanía donostiarra. Y es lógico que sea así. Porque aunque San Sebastián continúa siendo una ciudad segura en términos generales, la opinión de cada vez más ciudadanas y ciudadanos es que ya no lo es tanto, y los datos, por desgracia, respaldan esta percepción.

Sabemos que se trata de un problema complejo, pero es la hora de las soluciones, y desde el Grupo Socialista de Donostia defendemos la determinación de hallarlas y de ponerlas en marcha con todos los medios necesarios y con la prioridad que la cuestión exige.

Es imprescindible para ello una decidida voluntad política, porque se trata de un asunto que, más allá de las respuestas técnicas y de los recursos que deben acompañarlas, debe sortear también posturas que lo dificultan aún más. Nos referimos, por un lado, al interés de algunos en asociar automáticamente inseguridad con migración, cuando la gran mayoría de quienes vienen a nuestra tierra lo hacen para trabajar y vivir honradamente, respetando las leyes y contribuyendo a la riqueza material y cultural de nuestra sociedad.

Y por otro lado, también están quienes parecen sentir un rechazo instintivo ante las fuerzas de seguridad. Son quienes en ocasiones exhiben un buenismo que, lejos de ayudar, acentúa el problema.

Por eso nadie puede dudar de nuestro compromiso con el Estado del Bienestar y con unos servicios públicos fuertes que amparen a

zerbitzu publiko sendoen aldekoa ere. Eta legitimitate horrek, hain zuzen ere, bide ematen digu baieztatzeko irmo jokatu behar dugula delituak jazartzeko orduan, delitu horiek edonork egiten dituela ere. Izan ere, delituei aurre egitea eta segurtasuna zaintzea diskordia elikatzen duten eta gizarte-talde osoak bidegabeki seinalatzen dituzten diskurtsoak desaktibatzeko modurik onena ere bada.

quien los necesita. Y es precisamente esa legitimidad la que nos permite afirmar que debemos ser contundentes en la persecución de los delitos, los cometa quien los cometa. Porque atajar los delitos y preservar la seguridad es también la mejor manera de desactivar discursos que alimentan la discordia y señalan injustamente a grupos sociales enteros.

Herritarren segurtasunaren aldeko itun bat behar du Donostiak, Bilbon bezala, Segurtasunaren aldeko eta Delituen aurkako Itun Integrala baitago onetsita bertan. Plan eraginkor eta irmo bat, gure kale eta plazetan patruilak eta aurrez aurreko zaintza behar den guztia areagotzeko. Gune gatazkatsuenetan irmo jarduteko, neurri espezifiko eta iraunkorrekin. Beharrezko poliziaetxeak sortzeko, eta Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren arteko koordinazioa sakontzeko.

San Sebastián necesita un Pacto por la Seguridad Ciudadana, al igual que en ciudades como Bilbao, con su Pacto Integral por la Seguridad y contra los Delitos. Un plan eficaz y decidido que incremente cuanto sea necesario las patrullas y la vigilancia presencial en nuestras calles y plazas. Que actúe con contundencia en los focos más conflictivos con medidas específicas y permanentes. Que cree las comisarías necesarias y que profundice en la coordinación entre la Guardia Municipal y la Ertzaintza.

Eta ez da ahaztu behar, udal-eskumena gainditzen badu ere, lan politiko bat bultzatu behar dela, dagozkion erakundeen aurrean azpimarra dadin delituak behin eta berriz egiten dituztenen egoeraren aurrean erantzutea ahalbidetuko duen lege-aldaketa bat egin behar dela. Aurre egin behar diogu delituak behin eta berriz errepikatzeari.

Y no debe olvidarse que, aunque trasciende la competencia municipal, debe también impulsarse un trabajo político que subraye en las instituciones correspondientes la necesidad de cambios legislativos que permitan responder a las situaciones de multirreincidencia. Debemos combatir la reiteración en el delito.

Gai hori oso serioski hartu behar dugu, eta donostiarrei konfiantza eman behar diegu, hiri erabat seguru batean bizi garela eta beren Udalak horretarako behar diren baliabide guztiak jartzen dituela senti dezaten.

Debemos tomarnos muy en serio esta cuestión y devolver a los y las donostiarras la confianza de vivir en una ciudad plenamente segura y de que su Ayuntamiento pone para ello todos los medios necesarios.

Hori dela-eta, Donostiako Sozialistak PSE-EE taldeak EBAZPEN PROPOSAMEN hau sinatzen du, Udalbatzan eztabaida dadin:

Por todo ello, el grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE suscribe la siguiente PROPUESTA DE RESOLUCIÓN para ser debatida en el Pleno:

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Donostiako herritarren segurtasunaren aldeko ituna bat landu dezala.

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a trabajar en la elaboración de un Pacto por la Seguridad ciudadana en la ciudad de San Sebastián.

2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio hiriko puntu kritikoak ezabatzeko konpromisoari eutsi diezaiola, urtez urte puntu horiek ezabatzeko partida espezifikoa finkatuz, bai eta hiriko eremu berrietan eta eremu leheneratuetan puntu kritiko berriak sortzen ez direla bermatuz.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián instamos al Gobierno Municipal mantener su compromiso con la eliminación de los puntos críticos de la ciudad consolidando la partida específica para su eliminación año tras año, así como garantizando en que los nuevos desarrollos y áreas regeneradas de la ciudad no se creen nuevos puntos críticos.

3. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio egutegi oso bat egin dezala, hain zuzen ere Egia auzoan komisaria misto berria sortzeko eta abian jartzeko.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a elaborar un calendario completo de la creación y puesta en marcha de la nueva Comisaría Mixta en el barrio de Egia.

4. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio erakunde eskudunei jakinarazi diezaiela lege-aldaketak egin behar direla, delituak behin eta berriz egiten dituztenen arazoari aurre egiteko.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a elevar a las instituciones competentes la necesidad de llevar a cabo modificaciones legislativas encaminadas a combatir el problema de la multirreincidencia de los delitos.

Donostia, 2025eko urriaren 16

Ane Oyarbide Ochoa
PSE-EE udal taldearen bozeramailea”.

San Sebastián, 16 de octubre de 2025

Ane Oyarbide Ochoa
Portavoz grupo municipal PSE-EE”.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**6. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 6:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**

ALDEKO BOTOAK: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) PP.
AURKAKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 0.

VOTOS A FAVOR: 23 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (5) PSE-EE, (2) PP.
VOTOS EN CONTRA: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 0.

6. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
AHO BATEZ.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
UNANIMIDAD.

6. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
AURKAKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 0.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
VOTOS EN CONTRA: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 0.

6. GAIAREN 4. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 4 DEL ASUNTO N.º 6:

BOZKETAREN EMAITZA:
ONARTUA.
GEHIENGOA.
ALDEKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
AURKAKO BOTOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENTZIOAK: 8 – EH BILDU.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
APROBADO.
MAYORÍA.
VOTOS A FAVOR: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.
VOTOS EN CONTRA: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.
ABSTENCIONES: 8 – EH BILDU.

---------------

**7. Ebazpen Proposamena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Donostia osoa ostatu turistikoz gainezka dagoen hiri izendatzeari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko bozeramaile Juan Karlos Izagirre Hortelanok, Udalbatzaren Organo Araudiko 55. artikulua oinarri, eta Udalbatzak aztertu behar duen Politika Orokorrari buruzko Urteko Adierazpenari begira, honako ebazpena hau aurkezten du, Donostia osoa ostatu turistikoz gainezka dagoen hiri izendatzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

2023ko martxoan, Donostiako Udalak iragarri zuen hotel eta pisu turistiko berrien lizentziak urtebetez etengo zituela. Helburuen artean zeuden, besteak beste, “Hiriko etxebizitza-parkea bizitegi-erabilerarako lehentasunez erabiliko dela bermatzea”, “Egoiliarrek eta turistek bizitegi-eraikin berean duten bizikidetza konplexuaren ondoriozko tentsioei eta disfuntzionalitateei erantzutea” edo “Turismo-eredu jasangarria sustatzea, hiri eredu jasangarri batekin bateragarria dena”. 2024ko martxoko udalbatzan eman zitzaion ostatu-erabilerak arautzeko HAPOren aldaketa puntualari hasierako onarpena, moratoria beste bi urtez luzatuz.

HAPOren aldaketa honek, besteak beste, hiriko eremu eta auzo berriak ostatu-erabileraz gainezka edo saturatutzat jotzen ditu, baldin eta turismo-ostatuek eremu horretako etxebizitza-eskaintza osoaren ehuneko jakin bat gainditzen badute. Eta saturazio edo mugaketa hori justifikatu da 100 biztanleko 10 plaza turistikoren indizea gainditzen duenean. Horrela jasotzen da 2024ko otsaileko Ostatu-erabilerei buruzko Donostiako Hiri Antolamenduko Plan

**7. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a la declaración de San Sebastián como ciudad saturada de alojamientos turísticos.**

“Juan Karlos Izagirre Hortelano, portavoz del Grupo Municipal EH BILDU, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Resolución, relativa a la declaración de San Sebastián en su totalidad como ciudad saturada de alojamientos turísticos, para su tratamiento en el Pleno sobre la Declaración Anual de Política General.

JUSTIFICACIÓN

En marzo de 2023, el Ayuntamiento de San Sebastián anunció la suspensión por un año en el otorgamiento de licencias de nuevos hoteles y pisos turísticos. Entre sus objetivos se encontraban «Garantizar el uso preferente del parque de viviendas de la ciudad para uso residencial», «dar una respuesta a las tensiones y disfuncionalidades derivadas de la compleja convivencia de residentes y turistas en un mismo edificio residencial» o «promover un modelo turístico sostenible, compatible con un modelo urbano sostenible». En el pleno municipal de marzo de 2024 se aprobó inicialmente la modificación puntual del PGOU para la regulación de los usos de alojamiento, ampliando la moratoria por otros dos años.

La presente Modificación del PGOU considera, entre otros aspectos, nuevas zonas y barrios de la ciudad como zonas saturadas por usos de alojamiento turístico, en caso de que el número de este tipo de alojamientos supere un determinado porcentaje sobre la oferta total de viviendas de la zona. Y se establece que se produce saturación cuando se supera el índice de 10 plazas turísticas por cada 100 habitantes. Así se recoge en el documento de Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de

Orokorraren Aldaketa dokumentuan: auzo edo eremu bat ostatu-erabilerez gainezka dagoela joko da, baldin eta 100 biztanleko plaza turistikoen indizeak 10 plaza gainditzen baditu.

Aipatu dokumentuaren arabera, une horretan Donostiak 1.769 turismo-establezimendu eta 18.705 turismo-plaza zituen. Eta dokumentuak erreferentzia egiten dion adierazlearen arabera, horrela, 2024an Donostia osoko batez bestekoa 9,91 turismo-plaza zen 100 biztanleko. Hiriko auzo eta eremu jakin batzuek aise gainditzen zuten batez besteko hori, besteak beste, Erdialdeak (29,43) eta Antiguak (16,23). Ondorioz, auzo eta eremu horiek ostatu-erabilerez saturatutzat joko dira, Gros (11,33) bezala.

Baina Donostiako Hiri-Antolamenduko Plan Orokorraren Berrikuspenaren Aurrerakina (Jarduera ekonomikoak-Diagnostikoa) dokumentuaren arabera, gaur egun 19.828 ostatu-plaza daude Donostian. Horrek esan nahi du hirian batez beste 10,88 ostatu-plaza daudela 100 biztanleko; hau da, turismo-ostatuak mugatu eta eremu saturatu berriak izendatzeko proposatutako indizea gainditu dela.

Hiriko turismo-plazen kopurua izugarri hazi da azken urteotan.

HAPOren berrikuspenaren aurrerakinak adierazten du 10.728ko hazkundea izan dela sei urte eskasean (%116,62ko igoera 2016tik). Ostatu-erabilerei buruzko HAPOren aldaketa indarrean sartzen denean, Donostian ez da pisu turistiko berririk onartuko, baina hotel berriak irekitzeko aukera egongo da, eremu jakin batzuk baino ez baitira saturatu gisa izendatu. Horiek

Donostia-San Sebastián relativa a los usos de alojamiento, de febrero de 2024: se considerará que un barrio o zona se encuentra saturado de usos de alojamiento cuando se supere el índice de 10 plazas turísticas por cada 100 habitantes.

Según dicho documento, en ese momento San Sebastián contaba con 1.769 establecimientos turísticos y 18.705 plazas turísticas. Y según el indicador al que hace referencia el documento, en 2024, la media del conjunto de San Sebastián era de 9,91 plazas turísticas por cada 100 habitantes. Algunos barrios y zonas de la ciudad superaban ampliamente esta media, como por ejemplo el Centro (29,43) y el Antiguo (16,23). En consecuencia, dichos barrios y zonas se considerarán saturados de uso alojativo, al igual que Gros (11,33).

Sin embargo, de acuerdo con el Documento de Avance de la Revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Donostia-San Sebastián (Actividades Económicas-Diagnóstico), en la actualidad existen 19.828 plazas de alojamiento en San Sebastián, lo que supone una media de 10,88 plazas de alojamiento por cada 100 habitantes.

Es decir, se ha superado el índice propuesto para la delimitación de alojamientos turísticos y la designación de nuevas zonas saturadas.

El número de plazas turísticas de la ciudad ha aumentado enormemente en los últimos años. El Avance de la Revisión del PGOU señala un aumento de 10.728 plazas en apenas seis años (116,62% de incremento desde el año 2016). Con la entrada en vigor de la Modificación del PGOU relativa a los usos alojativos, no se admitirán nuevos pisos turísticos en San Sebastián, pero sí se podrán abrir nuevos

horrela, une honetan hotel berriak eraikitzen ari dira hirian, hala nola “DWO Donosti” Martutenen, 2026ko udaberrian irekiko dena eta 78 logela izango dituena, eta 80 logela baino gehiago hartuko dituen “Hilton” hotela ahaztu gabe. Are gehiago, saturatutzat jotako auzoetan, hala nola Grosen, salbuespenak aurreikusi dira, hotel-establezimendu berriak irekitzeko aukera emango dutenak. Ildo horretan, jakin berri da Hirigintza Sailak bi hotel-proiektu dituela mahai gainean María Inmaculada komentu zaharrerako, bata 118 gelakoa eta bestea 78koa.

establecimientos hoteleros, ya que únicamente se han declarado determinadas zonas como saturadas. En estos momentos se están construyendo nuevos hoteles en la ciudad, como el "DWO Donosti" en Martutene, que abrirá sus puertas en la primavera de 2026 con 78 habitaciones, sin olvidar el hotel Hilton, que albergará más de 80 habitaciones. Es más, en barrios considerados saturados, como Gros, se prevén excepciones que permitirán la apertura de nuevos establecimientos hoteleros. En este sentido, se acaba de saber que la Dirección de Urbanismo tiene sobre la mesa dos proyectos hoteleros para el antiguo convento de María Inmaculada, uno de 118 habitaciones y otro de 78.

Pisu turistikoei dagokienez, berriz, deigarria da Excelturrek 2024ko lehen hiruhilekoari buruz egindako txostena, zeinak erakusten zuen erabilera turistikoko etxebizitzen 508 plaza gehiago zeudela aurreko ikasturteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta. Hau da, moratoria gorabehera, Donostiako etxebizitza turistikoen kopuruak gora egiten jarraitzen zuela.

En lo que respecta a los pisos turísticos, llama la atención el informe realizado por Exceltur sobre el primer trimestre de 2024, en el que mostraba un incremento de 508 plazas en viviendas para uso turístico respecto al primer trimestre del curso anterior. Por tanto, este informe evidenciaba, que a pesar de la moratoria, el número de viviendas turísticas en San Sebastián seguía aumentando.

2024ko otsaileko Ostatu-erabilerei buruzko Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa dokumentuaren arabera, 1.424 pisu turistiko zeuden Donostian. Eusko Jaurlaritzaren erregistroan, ordea, 1.262 pisu turistiko zeuden erregistratuta Donostian 2024ko uztailean. Donostia hiri tentsionatu izendatzeko aurkeztutako dokumentazioren oinarri gisa Donostiako Etxegintzak egindako erradiografiak, bestalde, Donostian 1.395 pisu turistiko daudela adierazten du.

Según el documento de Modificación del Plan General de Ordenación Urbana de Donostia-San Sebastián relativa a los usos de alojamiento, de febrero de 2024, el número de pisos turísticos en San Sebastián era de 1.424. Sin embargo, en julio de 2024, el registro del Gobierno Vasco contaba con 1.262 pisos turísticos registrados en San Sebastián. La radiografía realizada por Donostiako Etxegintza como base de la documentación presentada para la declaración de San Sebastián como ciudad tensionada indica que en San Sebastián existen 1.395 pisos turísticos.

2025eko irailean, Espainiako Etxebizitza eta Hiri Agenda Ministerioak EAEko legez kanpoko 472 etxebizitza turistikoren

En septiembre de 2025, el Ministerio de Vivienda y Agenda Urbana de España comunicó referencias de 472 viviendas turísticas ilegales

erreferentziak jakinarazi ditu. Horietatik 138 Donostian daude. Hau da, ministerio horrek identifikatutako EAEko legez kanpoko etxebizitzen %29,23 Donostian daude. Hori dela eta, komunikabideek “Donostia figura en el top cinco vasco de pisos turísticos ilegales” bezalako titularrak eskaini dizkigute.

en Euskadi, de las cuales 138 están situadas en San Sebastián. Es decir, el 29,23% de las viviendas ilegales de la CAV identificadas por dicho ministerio se localizan en San Sebastián. Por ello, los medios de comunicación nos han ofrecido titulares como «Donostia figura en el top cinco vasco de pisos turísticos ilegales».

Horregatik guztiagatik, EH Bildu udal taldeak honako ebazpen hau aurkezten du:

Por todo ello, el Grupo municipal EH Bildu presenta la siguiente resolución:

1.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio abiatu ditzala hiri osoa ostatu-erabilerez saturatutzat jotzeko HAPOn egin beharreko aldaketen izapideak, Donostian turismo-ostatuak mugatu eta eremu saturatu berriak izendatzeko proposatutako indizea gainditu delako.

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a iniciar la tramitación de las modificaciones del PGOU para la declaración de la totalidad de la ciudad como saturada por usos de alojamiento, al haberse superado el índice propuesto para la delimitación de alojamientos turísticos en San Sebastián y la designación de nuevas zonas saturadas.

2.- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio beharrezko tresnak eman ditzala turismo-ostatuen eta, zehazki, pisu turistikoen irregulartasunak kontrolatzeko, iraungitze formulak aztertzeko eta denboraldiko alokairuen iruzurrarekin bukatzeko, azken batean jarraipena behar bezala egiteko, besteak beste, Udaltzaingoaren Udal Ordenantzak Betetzeko Unitatea berrezarri eta indartuz.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a dotar de los instrumentos necesarios para el control de las irregularidades de los alojamientos turísticos y, en concreto, de los pisos turísticos, así como para estudiar fórmulas de caducidad de licencias y acabar con el fraude de los alquileres de temporada; en definitiva, para poder realizar un correcto seguimiento, restableciendo y reforzando la Unidad de Cumplimiento de las Ordenanzas Municipales de la Policía Municipal, entre otros.

Donostian, 2025eko urriaren 16an

En San Sebastián, a 16 de octubre de 2025

Juan Karlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal taldearen bozeramailea“.

Juan Karlos Izagirre Hortelano
portavoz del grupo municipal EH Bildu“.

**7. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 7:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 10 – (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 15 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**8. Ebazpen Proposamena, EH BILDU Taldeak aurkeztua, ARCCO merkatal zentroaren egoerari buruzkoa.**

“EH Bildu udal taldeko bozeramaile Juan Karlos Izagirre Hortelanok, Udalbatzaren Organo Araudiko 55. artikulua oinarri, eta Udalbatzak aztertu behar duen Politika Orokorrari buruzko Urteko Adierazpenari begira, honako ebazpen proposamen hau aurkezten du.

JUSTIFIKAZIOA

Ia ab initio, Arcco Amara merkataritza-guneak hainbat arazo izan ditu, gunearen beraren bideragarritasun ekonomiko eta komertzialari eragiten ziotenak; horien artean, 1996az geroztik Udalak kanona kobratu ez izana dago. Hasieratik jarri zen krisian udal-jabetzako higiezin horren kudeaketa-eredua.

Urte asko ez aurrera ez atzera egon ondoren, Udalak aurreko kontratua azkentzea erabaki zuen, eta beste lehiaketa bat ateratzea, guneko merkatariei, Arcco Berri SLn eratutakoei, adjudikatua, 2044ra arte.

Hala ere, merkataritza-gune horren arazoak

**8. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la situación del centro comercial ARCCO.**

“Juan Karlos Izagirre Hortelano, portavoz del Grupo Municipal EH Bildu, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Resolución para su tratamiento en el Pleno sobre la Declaración Anual de Política General.

JUSTIFICACIÓN

Casi “ab initio”, el centro comercial Arcco Amara ha estado sujeto a diversa problemática que afectaba a la viabilidad económica y comercial del propio centro, incluyendo la falta de cobro por el Ayuntamiento del canon desde 1996. Ya desde ese comienzo se ponía en crisis el modelo de gestión de este inmueble de propiedad municipal.

Lo cierto es que, después de muchos años de “impasse” el Ayuntamiento decidió extinguir el contrato anterior y sacar un nuevo concurso adjudicado a los comerciantes del centro, constituidos en Arcco Berri S.L., hasta el 2044.

Sin embargo, con ello, los problemas del citado

ez ziren desagertu. Hori egiaztatzeko, nahikoa da merkataritza-guneak duen irudia eta hainbat merkatarik egiten duten balorazioa ikustea.

Orain arte, Udal Gobernua ez da gai izan auzia konpontzeko.

Ukaezina da merkataritza-gunean lokal hutsak eta itxiak daudela, eta horietako askok aspaldidanik jarduerarik ez dutela; hari lotuta dauden guneko merkatari batzuek zailtasun handiak dituzte beren obligazioetatik libratzeko, eta, kasu askotan, traba pertsonal eta ekonomiko bat dakarkie.

Duela gutxi, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epai baten berri izan dugu, Udalak gune horretako lokal batzuk berreskuratzea bermatzen duena.

Hori gertatzen den bitartean, bai Amara Berrik, bai hiriak berak espazio gutxi dituzte dauzkaten ekipamendu-beharrei erantzuteko.

Ez da horrelako egoera baten aurrean gauden lehen aldia; izan ere, Bretxak 2014an izan zuen susperraldi partziala horren adibide garbia da.

Azken batean, Arcco Amara aukera-gune bat da, eta, interes publikoaren ikuspegitik, auzoaren beraren elementu eragile eta dinamizatzaile gisa erabil daiteke eta erabili behar da. Betiere, inguru horretako bizilagunak aintzat hartuta.

Hori guztia ikusita, honako hau sinatzen duen bozeramaileak ebazpen-proposamen hau aurkezten du:

centro comercial no desaparecieron. Para constatarlo, es suficiente con ver la imagen que presenta el centro comercial y la valoración que realizan varios de sus comerciantes.

Hasta la fecha, el Gobierno Municipal se ha mostrado incapaz de resolver la cuestión.

Es irrefutable, que en el centro comercial existen locales vacíos, cerrados, muchos de ellos sin actividad desde hace años; que existen comerciantes del centro que están atados al mismo con serias dificultades para poder liberarse de sus obligaciones, y que en muchos de los casos les supone un lastre personal y económico.

Recientemente además hemos tenido conocimiento de una sentencia del TSPJV que avala la recuperación por parte del Ayuntamiento de una serie de locales del citado centro.

Mientras esto sucede, tanto Amara Berri, como la propia ciudad presenta un déficit de espacios que den respuesta a las necesidades de equipamientos constatadas.

No es la primera vez que nos encontramos ante este tipo de situaciones, de hecho, la recuperación parcial de La Bretxa en el 2014 es un claro ejemplo de ello.

En suma, Arcco Amara es un espacio de oportunidad que, desde la perspectiva del interés público, puede ser y debe ser utilizado como elemento tractor y dinamizador del propio barrio. Siempre contando para ello con los vecinos de la zona.

A la vista de todo ello, el portavoz que suscribe presenta la siguiente propuesta de resolución :

1.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio ekin diezaiola Arcco Amara guneko beheko eta goiko solairuak partzialki berreskuratzeari, zuzeneko kudeaketara bueltatuz, auzoaren eta hiriaren ekipamendu-beharrei erantzuteko, eta, horrela, auzoaren jarduera dinamizatzeko eta elkartzeko balio duen ardatz hori indartzen laguntzeko.

2.- Prozesu horretan, inguruko bizilagunen eta inplikatutako gainerako eragileen iritzia hartuko da kontuan.

3.- Era berean, eskatzen da erabaki dadila berehala hastea lehenengo puntuan xedatutakoa betetzeko beharrezkoa den administrazio- eta lege-izapideak.

4.- Bestalde, Udal Gobernuari eskatzen zaio aparkalekuaren egungo egoera azter dezala eta neurriak har ditzala hura publiko bihurtzeko.

5.- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Sustapena sozietatearekin, Gipuzkoako merkataritza-federazioarekin eta merkataritza-elkarteekin lankidetzan, Arccoko espazio publikoen dinamizazioak sortuko dituen sinergietan oinarritu ahal izango den merkataritza birgaitzeko proiektu bat diseinatu eta ezartzeko.

Donostia, 2025eko urriaren 16a

Juan Carlos Izagirre Hortelano
EH Bildu udal-taldearen bozeramailea”.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que inicie el rescate parcial del centro Arcco Amara tanto de la planta calle como de las plantas superiores, recuperando la gestión directa; al objeto de que sea destinado a satisfacer las necesidades equipamentales tanto del propio barrio como de la ciudad, contribuyendo así a reforzar un eje dinamizador y de encuentro de la actividad del barrio.

2.- En dicho proceso se tendrá en cuenta la opinión de vecinos y vecinas del entorno y demás agentes implicados.

3.- Asimismo, se insta con carácter inmediato a que se acuerde iniciar la tramitación administrativa y legal que sea precisa para cumplir con lo dispuesto en el primer punto.

4.- Se insta asimismo al Gobierno Municipal a que estudie la situación actual del parking, y a tomar medidas en dirección a la publificación.

5.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que en colaboración con la sociedad de fomento, la federación mercantil de Guipúzcoa y las asociaciones comerciales diseñe e implemente un proyecto de rehabilitación comercial que pueda apoyarse en las sinergias que genere la dinamización de los espacios públicos de Arcco.

Donostia, a 16 de octubre de 2025

Juan Carlos Izagirre Hortelano
Portavoz del grupo municipal EH BILDU”.

**8. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 8:**

**BOZKETAREN EMAITZA:
BAZTERTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:
RECHAZADA.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 12 – (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 12 – (8) EH BILDU, (2) PP, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 13 – (8) EAJ/PNV, (5) PSE-EE.**
**ABSTENCIONES: 0.**

---------------

**9. Ebazpen proposamena, EAJ/PNV Taldeak aurkeztua, Euskadi Ipar muga aitortzeari buruzkoa.**

“Jon Insausti Maisterrena, EAJ / PNV udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzako Erregelamendu Organikoaren 55. artikuluan oinarrituta, Politika Orokorrari buruzko Udalbatzan eztabaidatzeko aurkezten du honako ebazpen-proposamen hau, Euskadi Ipar Muga aitortzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Euskadik urteak daramatza migrazio errealitate berezi bat bizitzen, Estatuko beste eskualde askotatik bereizten duena, eta horrek “ipar muga” gisa formalki aitortzeko beharra legitimatu egiten du. Azken urteetan, 2018tik hona, 40.000 pertsona baino gehiago zenbatu dira Euskaditik igaro direnak Europako beste herrialde batzuetarako bidean, euskal lurraldea derrigorrezko pasabide gisa erabiliz beren egoera erregularizatu, dokumentuak erregistratu edo asiloa bilatzeko, Frantziako mugaren hurbiltasunagatik. Etengabeko fluxu honek presioak sortzen ditu harrera eta babes zerbitzuetan, eta Eusko Jaurlaritza eta inplikatutako udalerriak behartzen ditu dauzkaten baliabide eta ardurak gainditzen dituzten erantzukizunak bere gain hartzera.

**9. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo EAJ/PNV, relativa al reconocimiento de Euskadi como frontera Norte.**

“Jon Insausti Maisterrena, portavoz del grupo municipal EAJ / PNV, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno sobre Política General la siguiente propuesta de resolución, relativa al reconocimiento de Euskadi como Frontera Norte.

JUSTIFICACIÓN

Euskadi vive desde hace años una realidad migratoria particular que la diferencia de muchas otras regiones del Estado, lo que legitima la necesidad de reconocerla formalmente como “frontera norte”. En los últimos tiempos, se han contabilizado más de 40.000 personas que han transitado por Euskadi desde 2018 rumbo a otros países europeos, utilizando el territorio vasco como paso obligado para regularizar su situación, registrar documentos o buscar asilo, debido a la proximidad con la frontera con Francia. Este flujo constante genera presiones estructurales en los servicios de acogida y protección, y obliga al Gobierno Vasco, así como a los municipios implicados, a asumir responsabilidades que muchas veces superan los recursos inicialmente asignados.

Euskadi ipar muga gisa aitortzeak errealitate hori legez eta aurrekontuz aitortzea ekarriko luke, Kanariarekin hego muga gisa egiten den bezala (eta, neurri batean, Ceuta eta Melillarekin ere). Estatus horrek funts espezifiko eta egonkorrak jasotzea ekarriko luke funtsezko zerbitzuak emateko: nazioarteko babesa, adingabe bakarrak hartu, osasun arreta, gizarte integrazioa, aldi baterako etxebizitza, eta abar. Euskadik jada lan horren zati handi bat bere gain hartu du, tresna arautzaile guztiak edo baliabide nahikoak izan gabe, euskal agintariek aitortzen duten bezala.

Reconocer a Euskadi como frontera norte implicaría reconocer esa realidad en términos legales y presupuestarios, del mismo modo que se hace con Canarias como frontera sur (y, en cierto grado, con las ciudades de Ceuta y Melilla). Este estatus conllevaría la asignación de fondos específicos y estables para atender servicios esenciales: protección internacional, acogida de menores no acompañados, atención sanitaria, integración social, vivienda temporal, etc. Euskadi ya está desarrollando buena parte de esa labor “a pulso” sin tener todos los instrumentos normativos o recursos suficientes, como reconocen las propias autoridades vascas.

Gainera, Frantziarekin lurreko muga izanik, Euskadik honako eginkizun hauek ditu: mugak zeharka kontrolatzea, pertsonen joan-etorria kudeatzea, eta nazioarteko eta estatuko erakundeekin koordinatzeko ardura. Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariek dagoeneko eskatu diote Europako Batzordeari Euskadiko migrazio-egoerari buruzko iritzia eman dezaten, banaketa justua eta kontingentzia-plan egoki bat eskatuz. Eginkizun hori muga gisa formalki aitortzeak erakundeen arteko koordinazioa eta eskumenen argitasuna indartuko lituzke, eta kudeaketa bidezkoagoa, eraginkorragoa eta humanitarioagoa ahalbidetuko luke.

Además, al ser frontera terrestre con Francia, Euskadi tiene funciones de control indirecto de fronteras, gestión de tránsito de personas, y responsabilidad en la coordinación con organismos internacionales y estatales. Por ejemplo, la Comisión Europea ya ha sido instada por representantes vascos a pronunciarse sobre la situación migratoria “tensionada” en Euskadi, reclamando un reparto justo y un plan estatal de contingencia acorde. Reconocer formalmente ese papel como frontera reforzaría la coordinación institucional, la claridad en competencias, y permitiría una gestión más justa, eficaz y humanitaria.

Azkenik, etikaren, giza eskubideen eta erantzukizun partekatuaren ikuspegitik, Euskadi iparraldeko muga gisa ofizialki aitortzeak balioko luke immigrazioaren arloan euskal komunitateari eragiten dioten kostuak ikusarazteko, eta pertsonak "jasotzen" dituztenak ez ezik, igarobidea, ostatua edo gizarte-arreta ematen dutenei ere tentsiorik ez sortzeko. Ipar muga izateak betebeharrak bere gain hartzea dakar, baina baita eskubideak izatea ere: laguntza-eskubideak, finantza-lankidetza, Estatuko eta Europako politiketan parte hartzea, eta migrazio-

Finalmente, desde una perspectiva ética, de derechos humanos y de responsabilidad compartida, el reconocimiento oficial de Euskadi como frontera norte serviría para visibilizar los costes que afectan a la comunidad vasca en materia de inmigración, y para promover políticas que no tensionen solo a quienes “reciben” personas sino también a quienes hacen de paso, alojamiento o atención social. Ser frontera norte implica asumir deberes, pero también tener derechos: derechos de apoyo, cooperación financiera, participación en políticas estatales y europeas, y reconocimiento de la

errealitatea lurraldearen egitura-osagai gisa aitortzea.

Horregatik guztiagatik, gure udal taldeak aurkezten du

EBAZPEN-PROPOSAMENA

1.- Donostiako Udalbatzak Espainiako Gobernuari eta dagokien administrazioei Euskadi “Ipar Muga” gisa formalki aitor dezatela eskatzen du, errealitate geoestrategiko eta sozialarekin bat eginez, eta Kanariak, Ceuta eta Melillari emandako estatusarekin parekatuz, migrazio kudeaketan dituen erantzukizunei dagokien tratamendu juridiko eta aurrekontu babesa bermatzeko.

2.- Donostiako Udalbatzak funts espezifiko, egonkor eta nahikoak esleitu daitezela eskatzen du, nazioarteko babes zerbitzuak, adingabe bakarrak hartu, osasun arreta bermatu, gizarte integrazioa eta aldi baterako etxebizitza zerbitzuak indartuak izan daitezen, Euskaditik igarotzen diren migrazio fluxuei duintasunez eta eraginkortasunez aurre egin ahal izateko.

3.- Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzaren, Gobernu Zentralaren, Europako Batzordearen eta tokiko erakundeen arteko koordinazio instituzional eraginkorra premiaz eskatzen du, mugaren kudeaketa humanitarioa, bidezkoa eta efizientea bermatuz, bai eta Euskadik Estatuko eta Europako migrazio-politikak lantzen eta aplikatzen aktiboki parte hartzea eskatzea ere.

Donostia. 2025eko urriaren 16a.

Jon Insausti Maisterrena

realidad migratoria como componente estructural en la configuración del territorio.

Por todo ello, nuestro grupo municipal presenta la siguiente

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián exige al Gobierno de España y a las administraciones competentes el reconocimiento formal de Euskadi como “Frontera Norte”, en consonancia con la realidad geoestratégica y social del territorio, y equiparable al estatus otorgado a Canarias, Ceuta y Melilla, para asegurar un tratamiento jurídico y presupuestario adecuado a sus responsabilidades en la gestión migratoria.

2.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita la asignación de fondos específicos, estables y suficientes destinados a reforzar los servicios esenciales de protección internacional, acogida de menores no acompañados, atención sanitaria, integración social y vivienda temporal, que permitan afrontar con eficacia y dignidad los flujos migratorios que transitan por Euskadi.

3.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a la coordinación institucional efectiva entre el Gobierno Vasco, el Gobierno Central, la Comisión Europea y los entes locales, garantizando una gestión humanitaria, justa y eficiente de la frontera, así como la participación activa de Euskadi en la elaboración y aplicación de políticas migratorias a nivel estatal y europeo.

Donostia / San Sebastián. 16 de octubre de 2025.

Jon Insausti Maisterrena

EAJ / PNV Udal Taldearen Bozeramailea”.

Portavoz del grupo municipal EAJ / PNV”.

**HALA ESKATU DUTENEZ, BOZKETA PUNTUKA EGITEA ONARTU DA / PREVIA SOLICITUD, SE ACCEDE A LA VOTACIÓN POR PUNTOS:**

**9. PROPOSAMENAREN 1. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 1 DE LA PROPUESTA N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU.**
**AURKAKO BOTOAK: 7 – (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU.**
**VOTOS EN CONTRA: 7 – (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**9. PROPOSAMENAREN 2. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 2 DE LA PROPUESTA N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 7 – (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 0.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU, (2) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 7 – (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0.**

**9. PROPOSAMENAREN 3. PUNTUAREN BOZKETA / VOTACIÓN DEL PUNTO N.º 3 DE LA PROPUESTA N.º 9:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 16 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADO.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 16 – (8) EAJ/PNV, (8) EH BILDU.**

**AURKAKO BOTOAK: 7 – (5) PSE-EE, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

**VOTOS EN CONTRA: 7 – (5) PSE-EE, (2) PP.**

**ABSTENCIONES: 2 – ELKARREKIN DONOSTIA.**

---------------

**10. Ebazpen proposamena, EAJ/PNV Taldeak aurkeztua, Loiolako Hondakin Uren Araztegiari buruzkoa.**

“Jon Insausti Maisterrena, EAJ/PNV udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 55. artikuluan oinarrituta, honako erabaki-proposamen hau aurkezten du Politika Orokorreko Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin, Loiolako Hondakin Uren Araztegiari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Loiolako Hondakin Uren Araztegia, 2000 eta 2005 urteen artean eraiki zena, garaiko estandar teknikoen arabera diseinatu zen. Hala ere, araudiak bilakatu direnez, ez dira nahikoak izan gaur egungo arazketa-eskariei erantzuteko, eta horrek eragin zuzena izan du araztegiaren gaitasunean.

Añarbeko saneamendu-sistema eraginkorragoa bihurtzeko helburuz, hainbat erakundek —Añarbeko Mankomunitateak, URAk eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak— Saneamendu Orokorraren Plana aldatzea adostu zuten. Plangintza berriak jasotzen zuen zonaldeko bi paper fabrikek beraien hondakin urak beraien instalazioetan eta baliabideekin tratatzea. Ondoren, Mankomunitateak ur horiek jaso,

**10. Propuesta de Resolución, presentada por el Grupo EAJ/PNV, relativa a la EDAR de Loiola.**

“Jon Insausti Maisterrena, portavoz del grupo municipal EAJ / PNV, al amparo del artículo 55 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta para su tratamiento en el Pleno sobre Política General la siguiente propuesta de resolución, relativa a la EDAR de Loiola.

JUSTIFICACIÓN

La Estación Depuradora de Aguas Residuales (EDAR) de Loiola, construida entre 2000 y 2005, fue diseñada conforme a unos criterios técnicos que respondían a los estándares vigentes en el momento de su licitación, pero que han resultado insuficientes ante la evolución normativa posterior. Esta situación ha condicionado la capacidad de la planta para responder adecuadamente a las exigencias actuales en materia de depuración.

Con el objetivo de mejorar la eficiencia del sistema de saneamiento del Añarbe, las instituciones implicadas —incluyendo la Mancomunidad del Añarbe, URA y la Confederación Hidrográfica del Cantábrico— acordaron en su momento cambiar el plan general de saneamiento. El nuevo enfoque consistía en que las dos grandes papeleras de la zona trataran sus aguas residuales dentro de sus propias instalaciones y con sus propios

garraiatu eta itsasora isurtzeko ardura hartu zuen.

Hala ere, 2021ean Saneamendu Orokorraren Planaren berrantolaketa baten ondorioz, isurkin horietako batzuk Loiolako araztegian tratatatzea erabaki zen. Horrek, araztegian, teknologia egokitzapen garrantzitsuak eskatzen ditu, eta aurrez aurreikusitakoa baino inbertsio kostu handiagoa dauka. Nahiz eta Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioak (MITERD), bere sozietate publikoa den ACUAES-en bidez, 2023tik aurrera aurrekontu-partidak sortu dituen, orain arte ez da finantzaketa osoa zehaztu, ez eta obrak esleitu, 2025eko apirilean esleitutako proiektuaren erredakzioa izan ezik.

Egungo egoerak administrazio eskudunen erantzuna eskatzen du. Loiolako araztegiaren egokitzea, behar teknikoa izateaz gain, erantzukizun instituzionala ere bada, ingurumen-kalitatea, erakunde kudeatzailearen segurtasun juridikoa eta isurketaren arloan Europak hartutako konpromisoen betetzea bermatzeko.

Horregatik guztiagatik, gure udal taldeak aurkezten du

ERABAKI-PROPOSAMENA

1. Donostiako Udalbatzak premiaz eskatzen dio Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioari (MITERD) eta Eusko Jaurlaritzari berehala bere gain har ditzatela Loiolako araztegia handitzeko obren finantzaketa osoa.

2. Donostiako Udalbatzak obra horiek 2024/3019 Europako Zuzentarauan jasotako hondakin-uren tratamenduari buruzko

medios. Así, la Mancomunidad solo se encargaría de recoger el agua ya tratada en las dos factorías, trasladarla y verterla al mar.

Sin embargo, la reorientación del plan general de saneamiento en 2021 implicó que algunos de esos efluentes deban ser tratados en la EDAR de Loiola, lo que requiere de una ampliación tecnológica significativa con un coste superior al inicialmente previsto. A pesar de que el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico (MITERD), a través de su sociedad pública ACUAES, ha incluido partidas presupuestarias para esta actuación desde 2023, hasta la fecha, no se ha concretado la financiación total ni se ha licitado la ejecución de las obras, más allá de la redacción del proyecto adjudicada en abril de 2025.

La situación actual exige una respuesta por parte de las administraciones competentes. La adecuación de la EDAR de Loiola no solo es una necesidad técnica, sino también una responsabilidad institucional para garantizar la calidad ambiental, la seguridad jurídica de la entidad gestora y el cumplimiento de los compromisos europeos en materia de vertido.

Por todo ello, nuestro grupo municipal presenta la siguiente

PROPUESTA DE RESOLUCIÓN

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico (MITERD) y al Gobierno Vasco a que asuman de forma inmediata la financiación completa de las obras de ampliación de la EDAR de Loiola.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián exige que dichas obras incorporen la tecnología necesaria para cumplir con holgura la

araudia betetzeko beharrezkoa den teknologia kontutan hartzea premiaz eskatzen du, tratamenduaren eraginkortasuna eta saneamendu-sistemaren iraunkortasuna bermatzeko.

Directiva europea en vigor de tratamiento de aguas residuales 2024/3019, con el fin de garantizar la eficacia del tratamiento y la sostenibilidad del sistema de saneamiento.

3. Hau gauzatua izan dadin, Donostiako Udalbatzak epe eta aurrekontu-konpromiso egiaztagarriak izango dituen egutegi zehatz bat eskatzen du, egungo egoera desblokeatu eta indarrean dagoen araudiak ezarritako kalitate-estandarrak betetzeko aurrerabidean.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián solicita que se establezca un calendario concreto de ejecución, con plazos definidos y compromisos presupuestarios verificables, que permita desbloquear la situación actual y avanzar hacia el cumplimiento de los estándares de calidad exigidos por la normativa vigente.

Donostian 2025eko urriaren 16an

Donostia / San Sebastián. 16 de octubre de 2025.

Jon Insausti Maisterrena
EAJ / PNV Udal Taldearen Bozeramailea".

Jon Insausti Maisterrena
Portavoz del grupo municipal EAJ / PNV".

**10. PROPOSAMENAREN BOZKETA / VOTACIÓN DE LA PROPUESTA N.º 10:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD**

---------------

**ETA BILERAK BESTE XEDERIK EZ DUENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO SEIAK ETA LAUETAN AMAITUTZAT JO DU BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECIOCHO HORAS Y CUATRO MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, LA SECRETARIA, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / LA SECRETARIA:**

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

| | |
|---|---|
| **Gai zk. /** Asunto nº | 1.2. |
| **Mota /** Clase | Akta/Acta |
| **Eguna /** Fecha | 2025/10/30 |
| **Saioa /** Sesión | OHIKOA |

**UDALBATZA** / PLENO

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Berretsia** Ratificado | | **Aho batez** Unanimidad | X | **Aldeko botoak** Votos a favor | |
| **Onartua** Aprobado | X | **Quorum** | | **Aurkako botoak** Votos en contra | |
| **Jakinean** Enterado | | **Gehiengoa** Mayoría | | **Abstentzioak** | |

**Oharrak**
Observaciones

..........................................................................

..........................................................................

..........................................................................

Nagore Sarasola Otermin
Idazkari nagusia

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Nagore Sarasola Otermin (31/10/2025 11:24 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : DNUF-0ODN-MUXS-WS84